

130 URTE BERANDUAGO

Joxan Arbelaiz

Aurtengo apirilaren 15ean, ireki zenetik 130 urte igaro ondoren, Arruabarrenatarren pelukeriak atek itxi ditu betiko. Bernardinoren jubilarzioaren ondorio zuzena. Erdiko Kaleak galdu du orain arte zuen komertziorik zaharrena. Estuki loturik izan dira biak, denda eta kalea.

Ezagutu genuen dendaz beteriko Erdiko kale bizi eta mugimendu handiko hura pasabide triste bilakatzen ari zaigu. Eta garai bateko kalearen nostalgia datorkigu gogora.

kaletik batzuek eta Erdiko kaletik besteek. Kalearen egiturak Erretereria txikiago batetaz hitzegiten digu oraindik ere.

Burutapen horietan murgildurik, Bernardino Arruabarrenarengana hurbiltzen naiz arratsalde batez. Bero sargori dago; baina, ehizari amorratua dela ondo dakidan arren, ez diot ehizari buruzko galderarik egiten, honelako eguraldiarekin ezinbestekoa dirudien arren. Gaur bere familiak 130 urtetan zuzendu duen pelukeria



Arg: Inaki Erkizia



Arg: Inaki Erkizia

Zerbitzuz ornituriko kalea genuen erdiko kalea. Bertan, gaur ez dauden Lekuona eta Garmendia okindegiak, Blasaren arraindegiak, Josefinaren harategiak, Carreratarren ferreteriak, otargilearen dendak, Natiren mertzeriak, Adarragarren zapateriak, Etxebestetarren berdura dendak, "El Obrador" pastelariak, Basilioren zapateriak, Funerariak, Arbizu tabernak eta abar luze batek gorputza ematen zioten gure herriko kale bizi eta zapore handiko honi. Erretereriako kasko zaharren birgaitze lanak azkar eta mimo handiz tratatu beharko du kale hau, gehiago degradatu ez dadin eta lehengo bizitazuna berreskura dezan.

Kale maitea da erreteriarrentzat eta kaleari ondo erreperatuz gero Erretereriako herriaren historia eta egituraz zenbait gauza agerian gelditzen da oraindik ere. Zenbaki bakoitietako etxe-lerrokada garai bateko harresia edo itxitura izan zen, horregatik etxe horiek guztiak Erdiko kaletik dute bere sarrera. Zenbaki bikoitietako etxeek, aldiz, tartekatu egiten dituzte sarrerak, Eleiz

eta bere bizitza profesionala dugu mintzagai. Eta bigarren honetatik hasten natzaio galdezka.

Jubilazioa iritsi zaizun honetan, zure bizitza profesionalaren hasiera gogoratzen al duzu? Nolako oroimena dakarkizu burura?

11 urterekin aitarekin hasi nintzen lanean, pintxe bezala. Momentu horretan, aitaz gain, beste bi pertsonen lan egiten zuten bertan. Joxé Iturria fijoja zen eta bestea, berriz, orduz kanpo eta jaietan laguntzera etortzen zitzaigun. Mugimendu handia zeukan pelukeriak. Kontuan hartu behar da, garai hartan, jendeak hamabostean behin moztu zuela hilea. Eta, bestetik, lepoa antolatzeke (honela esaten genion, aipatzen dit Bernardinok) ohitura handia zegoela. Bestetik jende asko zen bizarra mozttera pelukeriara etortzen zena, astean behin gutxienez.

Hasierako denbora haietatik zertan aldatu da zure lana?

Gauza askotan, noski. Hasteko, oraingo jende askok bi edo hiru hilabetez behin mozten du hilea bakarrik eta hori diferentzia handia da. Bestetik, mozteko eran ere aldaketa nabariak gertatu dira. Orain denbora gehiago pasa behar da kliente bakoitzarekin, zainduagoa da egin beharreko lana. Guri labainarekin hilea mozten ikasi beharra helduak ginela gertatu zitzaigun. Gaur hasi beharko lukeen batek guk izan genuen baino formazio hobe beharko luke.

Prezioak ere aldatu dira. Kontu egin, ni hasi nintzenean, gaur 54 urte, 3,50 pezeta kobratzen zen hilea mozteagatik.

Lanean aitarekin hasi zinela esan diguzu. Aitak jarri al zuen pelukeria ala aurretik datorkizue. Bestetik, ez al duzu jarraitzailerik izan familian?

Egia esan, ez dakigu era zehatz batez esateko, noiztikako den. Dakiguna da, duela 130 urte, behintzat, aitona hasita zuela pelukeria. Gerta daiteke, lehenagokoa ere izatea. Beti ere, toki berean egon delarik. Aitonak pelukeria eta etxe osoa hartu zuen. Eta bertan sortu eta hasi ginen senide guztiak. Nik ez nuen aitona ezagutu eta aitarekin aritu nintzen 1.969 arte. Harrez geroztik, bakarrik aritu naiz, familian jarraipenik izan ez dudala. Momentu batean Angel Mari anaia lanean aritu zen gurekin, baina gero utzi egin zuen.

Pelukerian sartzean bi gauza gertatu zaizkit deigarri azken urteotan. Zure klienteen artean euskaldunen kopurua oso haundia zela batetik eta bestetik, hau begitik sartzen zitzaidana, pelukeriako dekorazioa eta mobiliarioa beste garai batetik atera zirudiela, museo baten antzera, giro lasaia eta paketsua sortuaz.

Bai, arrazoia duzu. euskaldunen kopurua haundia da. Gehienak aspaldiko klienteak dira, betidanik guregana etorri izan direnak. Kasurik aipagarriena Gaintzurizketako aitona batena da, 5 urterekin etortzen hasi zen eta egun 90 urte ditu. Esaten zidan, bai, nora joango ote naiz orain. Baina erdaldunak ere ugariak dira. Ez pentsa.

Mobiliarioari dagokionean, berriz, silloiek 55 urte baino gehiago dituzte. Ni hasi nintzenerako jarriak zituen gure aita zanak. Garaian oso modernoak ziren. Aldaketa bakarra egin dut lokalean, lehengo lababoak kendu eta frentea berria jarri nion, ispilu haundi batekin. Baina, gaintzetzeko guztia lehen zen bezala mantendu dut, lurra, erlojua... Dena berdin dago.

Dena den, hilea apaintzeaz gain, pelukerian bertan beste lanak ere egin izan dituzu. Zorroztaille lanetan aritu izan zara, ez al da?

Zorrozteaz ezezik, bizarra mozteko labainak ere egiten genituen pelukerian. Etxean forjarik ez genuenez, kanpoan egiten zen lan hori, Gezalatarren azpian, gero Santos en ukularen ondoan, zeuden grabadoreek egiten ziguten lan hori. Hortik aurrerako guztia guk egiten genuen. Utzi genion lan horri, baina zorroztaille lanari jarraitu diot jubilaziora arte. Pelukerian jenderik ez zenean, denbora aprobeztatu beharra zegoen.

Zure jubilazioarekin pelukeria ixtean, lehengo pelukero zaharretatik ez da ia inor geldituko. Gaur herrian diren pelukero gehienak erabat berriak dira. Ez al da zuen lanbide horretan beste askotan baino aldaketa gehiago eman?

Izugarri aldatu da hori (eta pentsatzen jarrita, pixkanaka gogoratzen ditu, berak ezagututako pelukeriak eta iadantik itxi direnak). Nik ezagutu nituenetatik ia denak desagertu dira: Madalen kaleko Patxiku, Linazasoro, Lucio Camino, Garrido, La Modelo, Santamarta, Pedrotxe, Gamborena, Otegi (Erriondo), Pako, Taziano... Orain daudenetatik Ondartxoko Luis da zaharrena eta garai hartatik gelditzen den bakarra. Gero, Modernako Julio izango da eta hortik aurrerako guztiak askoz ere gaztegoak eta berriak dira.

Beti Erdiko kalean izan zaretenez, ondo ezagutuko duzu bertako bizimodua. Nolako oroimenak dituzu?

Oso kale bizia zen, gaurko aldiaren. Komertzio asko zen bertan eta jende ugari ibiltzen zen. Oiarzundik eta Irundik zetozenak bertatik sartzen ziren. Eta aste barruan ezezik, igande goizetan ere, herrian feria izaten baitzen. Guk pelukeria irekia izaten genuen igandetan eta inolako deskantsurik gabe aritzen ginen.

Oroimen zehatzei dagokionean, gogoan dut egun batez, Lekuonatarren panaderiak sua hartu zuela eta ondoan zegoen funerariako kaxa guztiak atera behar izan zituztela eta gure pelukerian sartu zituztela. Izugarritzko iskanbila sortu zen. Zorionez euria ari zuen eta sutea kontrolatzeko lanak erreztu egin ziren.

Bere zaletasunetaz hizketan jarraitzen dugu. Mendia eta ehiza izan direla gehien landu dituen afizioak aitortzen dit, baina ezer berezirik egin gabe, gehitzen du. Luzatzen gara horrelako solasean eta alkarri agur eginez, banatzen gara.

Apirilaren 15etik aurrera, Erdiko kalea tristegoa da, hutsagoa. 130 urteko historia bizia joan da.



Arg. Inaki Erkizia